

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko irailaren 9tik 13rako astea


➤ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Euroguneko industria-ekoizpenak % 0,4 egin zuen atzera uztailen. Datua, beraz, adituek espero zutena baino kaskarragoa izan zen, % 0,1eko beherakada iragarri baitzuten. Urteko datuei begiratuta, % 2 egin zuen behera. Izan ere, Alemaniako arazo industrialek ez zuten hobera egin, eta horrek Euroguneko industria-jarduera orokorrean izan zuen eragina. Euroguneko lau ekonomia nagusietatik Frantzia izan zen industria-ekoizpena handitu zuen bakarra, aurreikuspenen azpitik bada ere. Espainian, industria-ekoizpenaren hileko bilakaera % 0,4 jaitsi zen ekaina eta uztaila bitartean, maitatza eta ekaina artekoa baino bi hamarren gehiago.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: EBZ-REN BILERA

HAZKUNDE ETA INFLAZIO AURREIKUSPENAK:

	2019		2020		2021	
	Anterior	Actual	Anterior	Actual	Anterior	Actual
Crecimiento	1,2%	1,1%	1,4%	1,2%	1,4%	
Inflación	1,3%	1,2%	1,4%	1,0%	1,6%	1,5%

Datuaren analisia

EBZk gordailu-erraztasuna (bankuei gordailuengatik kobratzen dien tasa) -% 0,40tik -% 50era jaitsi zuen bere hileko bileran, espero zen moduan. Nolanahi ere, erreserben kopurua handitu zuen, eta aurrerantzean % 0ko tasa aplikatuko zaie -% 0,50ekoaren orde. TLTRO III eragiketen baldintzak ere hobetu zituen. Horrez gain, erakundeak zorra erosteko programa berri bat iragarri zuen. Azaroaren 1etik aurrera, EBZk aktiboak erosiko ditu, 20.000 milioi euro hilabeteko. Zenbatekoa espero baino txikiagoa izan da (30.000 milioi), baina, ordainetan, denbora mugarik gabe aplikatuko da. Amaitzeko, Draghik zuzentzen duen erakundeak tasak ez igotzeko konpromisoa hartu zuen, inflazio-helburua bete arte ez behintzat. Gainera, hazkunde eta inflazio aurreikuspenak berrikusi zituen.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia


Erresuma Batuko industria-ekoizpena hamarren bat igo zen, aurreko hilean jaitsi zen kopuru bera (- % 10) jaitea espero zenean. Manufaktura-ekoizpen britainiarrak, bestalde, % 0,3rainoko igoera izan zuen uztailean; tasarik handiena urtarritetik.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisa


Kontsumorako prezioen indizea (KPI) urte arteko % 1,7koa izan zen abuztuan, uztailean baino hamarren bat gutxiago, eta esperotakoa baino hamarren bat gehiago. Hileko datuei begiratuta, igoera % 0,1ekoa izan zen. Oso gorabeheratsuak diren energiaren eta elikagaien prezioak kanpo uzten dituen azpiko inflazioak % 0,3 egin zuen gora iragan hilean, eta, iazko abuztuarekin alderatuta, % 2,2tik % 2,4ra igo zen, azken 13 hiletako mailarik handiena. Datua Erreserba Federalaren bilera berria baino astebete lehenago ezagutu da, banku zentralak diruaren prezioaren murrizketa berri bat egiteko aurreikuspenak handitu diren honetan.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MICHIGANEKO KONFIANTZA



Datuaren analisia


Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen sentimendua 92,0ra igo da aurreko hileko 89,8tik, nahiz eta kontsultatutako analistek indizea 90,8ra igoko zela aurreikusi. Aukeren azpi-indizea 82,4ra igo da, esperotako 82,0aren eta aurreko hileko 79,9aren aldean. Gaur egungo baldintzak, halaber, 106,9ra igo dira, espero zena (107,0) baino pixka bat gutxiago, baina aurreko hileko 105,3ko datua gaindituz.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BPGd



Datuaren analisisia

Bigarren hiruhilekoko BPGd-aren behin betiko datua beherantz aurreikusi zen, %1,8tik % 1,3ra, gerra komertzialaren ondorioz. Enpresen inbertsioak murriztu ziren batik bat, Japoniako Bankuari pizgarri berriak sartzera behartuz.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
09/16	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.2
09/16	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 7.9
09/17	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-15.0
09/17	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-37.5
09/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
09/18	Japonia	Balantza komertziala	-¥365.4b
09/18	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.5
09/18	Eurogunea	Hileko eraikuntzaren ekoizpena	--
09/18	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 0.9
09/18	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.2
09/18	Italia	Balantza komertziala guztira	--
09/18	Estatu Batuak	Eraikitze baimenak	1300k
09/18	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1247k
09/18	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 4.7
09/18	Estatu Batuak	FOMC tasen erabakia (sabaia)	% 2.00
09/19	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	% 2.2
09/19	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.750
09/19	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	11.0
09/19	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	212k
09/19	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.37m
09/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 0.9
09/19	Japonia	BOJen politikaren oreka mota	--
09/20	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.3
09/20	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	-% 0.2
09/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.0

BURTSA:

Orokorrean, burtsek bilakaera positiboa izan zuten astean. AEBen eta Txinaren arteko tentsio komertzialen baretzeak gidatu zituen burtsa-mugimenduak. Gainera, ekonomiaren gainbehera arintzeko, EBZk diru-pizgarrien sorta berri bat aktibatu zuen, eta hori guztia «akordiorik gabeko Brexitaren» arrisku txikiagoaren laguntzarekin. Balio ziklikoek menderatu zituzten igoerak, zor publikotik errenta aldakorren sektore ez hain defentsiboetarako mugimenduaren erdian. Arlo komertzialean, Txinak iragarri zuen ez ziela muga-zergarik ezarriko Estatu Batuetako 16 produktu motari, eta Ipar Amerikako soja kopururik handiena erosi zuen ekainetik. Bestalde, Trumpek iragarri zuen bi aste beranduago sartuko zuela indarrean Txinatik inportaturiko produktuen muga-zergak 250.000 milioi dolarreraino handitzeko neurria. Gainera, bi potentziek aste honetan elkarriketak berrabiaraziko dituztela baieztatu zen, hasieran iragarri baino lehenago. Europan, EBZk ez zuen huts egin joan den osteguneko bileran. Izan ere, bankuei gordailu-erraztasuna $-0,10\%$ jaitsi bazien ere, ondorioak arintzeko neurriak iragarri zituen bankuentzat. Horrez gain, aktiboak erosteko programa berrireki zuen, eta aldaketak egin zituen «EBZren gidan»; tasa baxuak espero zitekeena baino gehiago luzatuko direnaren seinale garbia. Erresuma Batuan, Boris Johnsonen Parlamentua ixteko agindua eman bazuen ere, oposizioak akordiorik gabeko Brexitari betoa jartzeko legea onartu zuen, lehen ministroari 3 hilabeteko luzapen berri bat eskatzera behartzen diona urriaren 19an Bruselarekin akordiorik egin ezean. Testuinguru horretan, EBrekin akordio bat lortzeko lan egingo zuela hitzeman zuen Johnsonen.

ERRENTA FINKOA:

Tasek nabarmen egin zuten gora Atlantikoaren bi aldeetan. Gerra komertzialaren eta akordiorik gabeko Brexitaren inguruko alerta apalagoak eta EBZren sostengua izan ziren, hain zuzen ere, zor publikoan izandako salmenten erantzuleak. Bund alemaniarra $-0,45\%$ ean kokatu zen, eta Espainian, 10 urterako tasak $+0,30\%$ ean amaitu zuen astea, $+0,02\%$ an kotizatu eta egun gutxi batzuk beranduago. AEBetan, bestalde, errentagarritasunak gehiago igo ziren. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Ezegonkortasun apalagoarekin, dolarrak eta yenak balioa galdu zuten gainerako dibisen aurrean. Liberak, aldiz, balioa handitu zuen Brexit gogorraren arriskua baretzearekin batera. Lehengaiei begira, petrolioaren prezioak gora egin zuen, Estatu Batuetako petrolio gordinaren izakinen beherakadak eta LPEEK ekoizpena gutxituko duelako aurreikuspenak eraginda. Hala ere, asteburuko gertaeren aurretik, AEBek Irani jarritako zigorra arintzeko aukerak petrolio gordinaren prezioa zuzentzea eragin zuen.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
MSCI WORLD (Local)	1.694,22	1,24	17,54
IBEX 35	9.137,90	1,64	7,00
DJ EURO STOXX 50	3.550,11	1,57	18,28
DJ STOXX 50	3.208,99	0,58	16,27
FTSE	7.367,46	1,17	9,50
S&P 500	3.007,39	0,96	19,97
Dow Jones	27.219,52	1,58	16,68
NASDAQ	8.176,71	0,91	23,23
NIKKEI 225	21.988,29	3,72	9,86
MSCI GORAKORRAK (Lo)	57.358,35	1,27	7,37
MEXBOL	42.841,46	0,31	2,88
BOVESPA	103.501,20	0,55	17,77
SHANGHAI	3.175,62	1,05	21,61
Errusia Rts Mosku	1.368,93	2,12	28,09

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,71	0,16	-0,10
ESPAINIA 2 URTE	-0,40	0,16	-0,16
AEB 2 URTE	1,80	0,26	-0,69
ALEMANIA 10 URTE	-0,45	0,19	-0,69
ESPAINIA 10 URTE	0,30	0,13	-1,11
AEB 10 URTE	1,90	0,34	-0,79
ALEMANIA 30 URTE	0,13	0,21	-0,75
ESPAINIA 30 URTE	1,26	0,17	-1,35
AEB 30 URTE	2,37	0,35	-0,64
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	45,47	-1,88	-42,90
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	238,10	-2,04	-115,58

Dibisak	Maila	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,11	0,39	-3,44
Yena / Euroa	119,70	1,54	-4,77
Libera / Euroa	0,89	-1,34	-1,45
Lehengaiak	Maila	%Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	60,63	-2,45	14,03
Urrea	1.488,65	-1,20	16,08

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.